

AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Oposaketak eta lehiaketak

LAN ETA JUSTIZIA SAILA

2123

AGINDUA, 2018ko apirilaren 10ekoa, Lan eta Justiziako sailburuarena, zeinaren bidez izendatzen baitira Auzitegi Medikuntzako Euskal Institutuaren Bizkaiko Zuzendariordeztan Auzitegi Klinikako zerbitzuburu lanpostu baten berariazko merezimendu-lehiaketarako merezimenduak baloratzeko batzordeko kideak.

Lan eta Justiziako sailburuaren 2018ko urtarrilaren 11ko Aginduaren bidez (2018ko otsailaren 5eko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu zen), Auzitegi Medikuntzako Euskal Institutuaren Bizkaiko Zuzendariordeztan Auzitegi Klinikako zerbitzuburu lanpostu baten berariazko merezimendu-lehiaketarako deialdia egin zen.

Justizia Administrazioako Funtzionarioen Sarbiderako, Lanpostu Hornikuntzarako eta Lanbide Sustapenerako Erregelamendua onartu zuen abenduaren 7ko 1451/2005 Errege Dekretuaren 50. artikuluekin bat etorriz, bidezkoa da eskatzaileen merezimenduak ebaluatuko dituen balorazio-batzordeko kideak izendatzea.

Horregatik guztiagatik, hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– 2018ko urtarrilaren 11ko Aginduaren bidez iragarritako berariazko lehiaketako merezimenduak baloratzeko batzordeko kide izendatzea honako hauek:

Batzordeburua:

Titularra: Jaime Feliú García.

Ordezkoa: Juan Antonio Gutiérrez De Celis.

1. bokala:

Titularra: Josu Abrisqueta Liceranzu.

Ordezkoa: Antonio M. Iturralde Arriaga.

2. bokala:

Titularra: David Del Valle Pérez.

Ordezkoa: Luis Miguel Querejeta Casares.

3. bokala:

Titularra: Ángel Almena Carbajo.

Ordezkoa: Arantxa Albisu Otaño.

2018ko apirilaren 20a, ostirala

4. bokala:

Titularra: Victor Verano Zapatel.

Idazkaria:

Titularra: Iñigo Cortazar Ibañez.

Ordezkoa: Bonifacio Alonso Gómez.

Bigarrena.– Agindu honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteiz, 2018ko apirilaren 10a.

Lan eta Justiziako sailburua,
MARÍA JESÚS CARMEN SAN JOSÉ LÓPEZ.